

**DVD-A****'Zazpikoloroa'**

lazko azaroan estreinatu zuten *Zazpikoloroa* ikuskizuna Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek. Kolore, argitasun eta alaitasun guztiak lapurtu, eta mundua zuri-beltzeko bihurtu nahi dute Belekoik eta haren laguntzaileek. Haien asmoak zapuztu, eta mundua kolorez janztea izango da pailazoaren zeregina.

Azken urtean herriz herri eskaini duten *Zazpikoloroa* ikuskizuna DVDan jaso dute orain, eta gaur bertan aurkeztu dute, Lasarte-Orian (Gipuzkoa). Ikuskizunaren izenburu bera du DVDak, eta 2012ko martxoaren 6an Andoaingo (Gipuzkoa) Bastero kultur-gunean zuzenean grabatutako emaldia jaso dute.

Horrekin batera, zazpi erreportaje landu dituzte. Etiopiar (Afrika) eta Londresera (Erresuma Batua) pailazoek egindako bidaia jasotzen da erreportaje banatan. Gizakien lurra elkarrearen lana erakusten dute beste bideo batean. Motxila 21 taldearen eta Tolosako (Gipuzkoa) Bonberenea txarangaren jarduna ere jaso dute beste bi bideoetan. Imanol Urbietari pailazoek egindako omenalditxoarekin esker oneko bideo bat prestatu dute. Azkenik, sukaldeko olio zikina birziklatzeak duen garrantzia erakusteko erreportajea landu dute. Ikuskizunarekin eta erreportajeekin batera, abestien partiturak jaso dituzte.

**Egilea:** Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

**Edukia:** 2 CD: *Zazpikoloroa* ikuskizuna grabatu dute haietako batean. Bestean, zazpi erreportaje jaso dituzte: *Irri konpontzailea Etiopian*, *Motxila 21*, *Londresen*, *Manolo*, *Gizakien lurra*, *Bonberenea txaranga* eta *Olibatxo*.


**Argitaratzailea:** Katxiporreta.

**DENBORA-PASAK****1. Munduari bira**

Izar handiak Donostian izan berri dira, eta Fermin han izan da, kamera eskuan. **Argazkikoak ere izar handiak izan ziren. Ba al dakizu zeintzuk diren?**

**2. Zer ordu da?**

Hamarretarako etxean egoteko esan dio amak txoriari. Ordularia gertatu egin zaio, ordea. **Non jarri behar dira orratzak, 23:15 badira?**

**23:15****Erantzunak**

**1.-** Marilyn Monroe, Frank Sinatra eta John Wayne. **2.-** Orratz txikia hamalika zenbakialaren parean, eta handia, hiru zenbakialaren parean.